

GAKO EKONOMIKOAK

- Jarraitu egiten dute ziurgabetasun fokuek (Italia, Brexit-a, Estatu Batuen merkataritza zigorrak...).
- Egoera honetan, hazkunde ekonomikoaren beheranzko aurreikuspenak ugaritu dira. Halere, aurreikuspenak ados daude adieraztean hazkunde tasak erlatiboki altuak izango direla; izan ere, argudiatzen dute gaur egungo ziurgabetasuna behin-behineko zarata besterik ez dela.
- Munduko burtsa nagusietan itxiera mistoak izan dira, eta nabarmendu dira Estatu Batuak eta Japonia positiboan eta Europako itxiera desberdinak.
- Errenta finkoko interes tasak igo dira orokorrean.
- Euroa indartu egin da yenaren aldean.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Atzean utzi dugu trantsiziorako hilabetea, hau da, iraila, ez baita albiste aipagarriak izan uda osoan zehar merkatuetan izan diren eta gogo inbertitzaileak geldiarazten jarraitzen duten kezka faktoreetan. Banku zentralak jarraitu egin dute normalizazio monetarioarekin ezustekorik gabe; izan ere, FEDek interes tasak % 2,25era arte igo ditu eta igoera gehigarrien ikuspegia aldatetik gabe mantendu du, eta EBZk aktiboen erosketak murriztu du. Herrialde emergenteek, interes tasa amerikarren igoerak bereziki nabaritzen dituztenek, badirudi ez dutela gaizki hartu igoera berri hau, eta badirudi, era berean, tentsioa arindu egin dela uda honetako protagonistetako batzuetan. Turkia eta Argentinak badirudi egoera bideratu dutela, zeren Turkiako gobernuak onartu baitzuen interes tasak igotzea dibisaren jaitsierari eusteko eta inflazioari aurre egiteko, eta Argentinak lortu baitzuen NDFren laguntza finantzarioaren igoera onartzea. Halere, mundu emergenteak presio radarraren mende jarraitzen du oraindik; izan ere, presio hori orain Brasilerara desbideratu da eta bertan inkestek adierazten dute zalantza maila handia dela berehala izango diren hauteskunderi begira. Bestalde, Trumpek ezarritako gurutzada protekzionistari dagokionez, hilabetean zehar ahots berriak sortu dira, bai makroekonomian bai enpresetan, eta horiek ohartarazi dute giro protekzionistak eta merkataritza gerra globalaren mehatxuak eragin negatiboa dutela; izan ere, horrek guztiak jada ziurgabetasuna sortu du eta inbertsioak frenatu ditu. NAFTA zaharra berrizeko AEBk Kanadarekin, deskontu minutuetan, egin duen akordioak berriz ere itxaropena piztu du, zeren, azaroan agintaldi erdiko hauteskunderen ondoren, badirudi jarrekerak baretuko direla eta garaiz iritsiko direla merkataritza jarduera globala errailetik irteera saihesteko. Atlantikoaren beste aldean, gai politikoek indarrean jarraitu dute. Brexit-ari buruzko negoziazioetan aurrerapen eskasak izan direnez, ziur asko epearen amaierara iriteteko adostasunik gabe iritsiko direla. Bien bitartean, Italian, 2019ko aurrekontuek EBren egonkortasun arauak errespetatuko zituztela iragartzeak ekarri zuen lasaitasuna desagertu egin zen hilabetearen amaieran, Alpeez haraindikoa Gobernuak erabaki ondoren defizit publikoa -% 1,6tik -% 2,4 igotzea; horrek esan nahi baitu Europarekin beste liskar bat izatea. Testuinguru horretan, urte honetarako hazkunde ekonomiko beheranzkoa izango dela adierazten dute berrikuspen ugari eta horietan soilik AEB geldituko litzateke kanpoan, erreforma fiskalaren bultzadari esker. Halere, aurreikuspenak ados daude adieraztean hazkunde tasak erlatiboki handiak izango direla oraindik, eta aipatutako guztia behin-behineko beharaldi bat besterik ez dela, agintari ekonomikoaren laguntzarekin maneia daitekeena, bereziki AEBren merkataritza liskarrei irtenbideak ematen zaizkien heinean.

ERRENTA ALDAKORRA

Aurretik esandakoa kontuan izanda, jarraitu egiten du errenta aldakor iparramerikarren portaera onak, S&P 500 indizeak hiruhilekorik onena itxi baitu 2013az geroztik, eta Japoniako marxa ona ere nabarmendu behar da, egonkortasun politikoak, ekonomiaren nolabaiteko marxa onak eta balio galera duen dibisak babestu baititu. Hori ez dator bat errenta aldakor europarrean edo emergentearen zati handi batean hilabete honetan sortu den desberdintasunarekin; izan ere, irabaziak erregistratu dira, % 2,18koa Milanen kasuen; % 1,60koa Parisen eta % 1,05koa Londresen, baita urteko minimoak ere burtsa batzuetan, adibidez, espainiarrean.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	2018ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.389,2	EUR	%-6,52
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.399,2	EUR	%-2,99
S&P-500	AEB	2.913,98	USD	%8,99
DOW JONES	AEB	26.458,31	USD	%7,04
NASDAQ 100	AEB	7.627,65	USD	%19,25
NIKKEI-225	JAPONIA	24.120,04	JPY	%5,95
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.047,91	USD	%-9,54
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.184,009	EUR	%3,83

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOIA

Errenta finkoan prozesu normalizatzailearen segidak interes tasak igo ditu, eta hamar urterako iparramerikarrak berriz ere % 3aren gunea gainditu du eta alemaniarra ehuneko puntu erdiko ingurunera itzuli da. Herrialde periferikoetan, arrisku primei eragin egin die Italiako gobernuak EBko aurrekontu arauak duen konpromisoarekiko zalantzek. Horrela, Espainiako primak iraila 115 puntutan amaitu zuen (abuztuzko itxierako 103tik), bonu espainiarren errentagarritasuna % 1,5ean zegoela. Azkenik, kreditua hobetu egin da 26 op estutuz.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	2018ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,32	0,01
	6 HIL.	-0,27	0,00
	12 HIL.	-0,16	0,01
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,52	0,10
	5 URTE	-0,09	0,11
	10 URTE	0,47	0,04
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,19	0,16
	5 URTE	0,52	0,13
	10 URTE	1,50	-0,07

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Merkataritza tentsioak lasaitzeak aukera eman du zigortuen dauden dibisa emergenteak udako hilabeteetan (Turkiako lira, Argentinako peso) lasaitzeko eta babes aktibizat jotako dibisen eskaria murrizteko. Horrela, hilabetean zehar hegakortasuna bizi izan den arren, euro/dolarraren kotizazioak iraila ia aldatetik gabe itxi du, eta euroa ia % 2,40 igo da yenaren aldean.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg

Dokumentu honen helburua informatzea da, ez da eskaintza komertziala, ezta finantza aktiboen salerosketa egiteko eskaera bat.

